

Erraturik

TXILLARDEGI



HIPOKRATES-en esaldia omen da hau: «Osagile onak eritasunaren oinarriak sendatzen ditu; osagile txarrak, aldi, eritasunaren sintomak».

Baiezpen horrek gaurkotasun osoa du gaur: Madrilak eta Parisek *sintomak* sendatu nahi dituzte, eta ez *gaitza*.

ETA ez baita Euskal Herriaren *gaitza*. Euskal Herriak jasaten duen herri-eritasunaren *sintoma* baizik.

Hipokrates-ek, hitz batez, gaitzetsi egingo luke hiri imperialetako osagileek hartu duten bidea.

Berriro esango dugu, eta beste hamaika bider ere errepikatu beharko bide dugu: ETA ez da Euskal Herriaren oinaze *zergatikoa*, gure nazio-oinaze horien *ondorioa* baizik. Ondorioak sendatuko badira, zergatikoa behar dira sendatu.

Herri honek jasaten duen morrontza egoera ikutu gabe, egurra batera eta bestera banatzea, kontsolagarri gerta dakioke zenbaiti, eta mingarri ere bai batzuri. Baina *euskal arazoa* ez da horretara konponduko.

Frantziako gobernuak ere, Ben Bella eta FLN-ko buruzagitza harrapatu zituen halako batez. Handik *urte gutxitara*, Arjelia bere burujabetza *osoa* lortu zuen.

Bilbidea lastuko dute, arantzat eta odol-
lez mukuru beteko. Hori bai, Ziur.

Baina herri honen *Auto-Determinazioaren arazoa* legezatu eta bideratu arte, hamaika erorketa gertaturik ere, berriro agertuko dira *nazio-independentsia* lortzeko dena emateko prest egongo diren gudari berriak. ETA lepo-moztuz ere, beste ETA berri bat jaioko da; eta beste bost.

Maiatzaren loreak sortzen diren bezalaxe, Herri honek bere buruaren jabe izatea erabaki baitu.

Vae Victis

LUZIEEN ETXEZAHARRETA



ERORTZEN direnen zikintzeak handitasun guti dakar irabazleari. Mendekuarien gogoak maiz horrela

hazi dira. Edo burutik buru gerra zikina dela ziurtatzeko ari dira batzu. Le Monde egunkariaren editoriala ETAKo buruzagien atxilotetaz ez uestzko itipikerian zabilan atzo.

Nahi den terrorismo odoltsuaren graduan jarririk ere Euskal Herriko abertzale batzuen borroka, den gutienez sudur punta baino urrutia gobernatzen duen kazetari batentzat argi da ETAREN borroka armatuak kutsu politiko bat daukala.

Le Monde-k dio «Erakunde maffia-
ren antzeko taldetxo bilakatu da gizartearen egiazko sustrairik gabe, iheslari diren atentatu egile batzu aterbetzen dituzten apaiz batzu ezik» edo «Bigarren mailako hiltzaileek aspaldian preso diren buruzagiak ordaindu dituzte. Ez dute lehenbiziko hedadura eta ez dute menperatu lerrakada gangsterismoa, droga trafikua eta erabiltze hotzari buruz, ETA desperado nukleo bat bilaka araziz».

Le Monde, Europa mendebaldeko kontzientzi demokratikoaren eta informazio zuzen eta neurituaren eredu da omen. Euskal Herriko kazetari itsu eta elkorrak ginateke. Brennus buruzagi galliarrek 'Vae Victis', zorigaitza bentzutei agindu zien ezpata eskuan. Gaur ezpatari ezten zitalaren isurkia ghitzen zaien. Hala ere heriotza ez litzateke bakea...

HEMEROTEKA



Mezu argi eta garbia ETarentzat


Ekintza politzialak gero eta gehiago ahultzen duen eta esparru politikoan garaitua izan den ETAK —gizartean gero eta jende gehiagok eta gero eta indar handiagoarekin arbuatzen du— Aljeriako bezalako eszenarioa prestatzeko moduan dagoela ueste izatea errealitateki oso urrun egotea da. HBko sektore argienei dagokie analisi hori inposatzea, guztien sufrimenduen bizkar ezinezkoa den gerrarekin segitzen ahalagintzen direnei.

EDITORIALA



'Sine Die' arazoa

Gomendagarria izango litzateke espainiarrek ez ulertzea



GALLEGO & REY / DIARIO 16

igandekoa bezalako operazioekin euskal arazoa amaituko denik. Onartu daiteke pausu garrantzitsua eman dela ETA erakunde armatua amaieran egon daitekeela ueste izateko, baina akats larria izango litzateke erakunde sortu ezazi zuten arazoei begiak ixtea edo baita ekonomia eta gizarte alorreko beste batzuei ere, berriz ere arazo horiek sortarazteko bizigarriak onenak direnak. Komunikabide batzuk lrungo artzapezaren kasua erabili duten moduak, euskal kutsua duen oro erruduntzeko nahia adierazten du, Euskal arazoan irekitako zauriak gezurre-

tan itxeak arazoa 'sindie' luzatzen laguntzen du, non ETA adierazpen bat baino ez den. Arazo hori bazegoen ETA sortu aurretik eta gero ere egon daiteke.

EDITORIALA



... eta Arzalluzen erantzuna

Xabier Arzalluzek argi baino argiago eman ditu moderazio,

EDITORIALA

LUZENDARIARI

«Gobernutik Diputaziora»: izenetik izanera ala zalditik astora?

Mikel Bujanda lagunak, martxoaren 26ko 'Izena' artikuluan, EUSKALDUNON EGUNKARIAN, Nafarroako Garaiko Gobernuari *Diputazioa* deitu behar geniokeela adierazi du. Araba, Gipuzkoa eta Bizkai-koen antzera. Haren uestez, 'Gobernuo de Navarra' adierazpena (*altonavarristas* direlakoek asmatu dute, gure herrialdea beste euskaldunengandik berezearren.

Neronek, nafarra naizen aldetik, ados egon behar nuke Bujandaren proposamenarekin. Arras ongi ikusi behar nuke Nafarroa Garaiko erakunde nagusiari *Diputazioa* (ez *Aldundia*, arren!) esan lekiola —nafarrik gehienok esan, horrelaxe esaten diogu— eta haren presidenteari, *Diputatu Nagusia*. Izan ere, *Diputazioa* eta *diputatuak* hitzak jasoak dira 1982ko Forua Hobetzeko Le-

gean, *Gobernua* eta *kontseilariak* hitzen sinonimo gisa.

«Behar nuke» diot, ez bait nator bat Mikel Bujandak eman duen azalpenarekin. *Gobernua* hitza ez da Nafarroa Garaia Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako diputazioetatik bereziteko asmatutako mamu hutsa. Nafarroa Garaia aldendua zen herrialde anai-ahizpa-arrebetatik hitz hori hautatu baino askoz lehenagotik. Gainera, *Diputazioa* ez da euskaldunon ez besteren erakunde: Espainiako probintzia guztietan diritza *Diputazioa* gobernu-erakundeari.

XVIII eta XIX mendeetan eta mende hoietako lehenbiziko hiru hamarkadetan, hots, ez lehenbiziko, ez jaurilaririk, ez legebiltzarrik, ez 'Euskadi' izeneko administrazio-unitaterik ere ez zegoen. Hego Euskal Herriko lau diputazioen elkarlana handi-handia izan zen. euskal eta kultur aferetan, adibidez. Noiz eten ote zen elkar lan hori? Noiz eta lehenbiziko euskal gobernu sortu zenean, 1936ko Euzko Jaurilaritza, baina, ez zuten *altonavarristek* asmatu.

Hortxe dago koska; horrexek ez bestek egiten du ezinezkoa izenetik izanera ailegatzea: Gasteizko Gobernuak. Gasteizen —edo nonahi— 'Gobierno Vasco' deritzen erakunderik dagoeno ez da izenezko 'Diputaziorik' izan Nafarroa Garaian. Hemengo erakunde onak lezate —1936a arte onartu zuten bezalaxe— Arabakoen, Bizkaikoen eta Gipuzkoakoen mailan egotea, baina ez dute inoiz onartuko, ez eta hurrik eman ere. Euskadikoan menpe egotea. Ez erakundeek berek, ez nafarren hiru laurdenak ere.

XABIER ZABALITZA Iruña

Gaia jarrita

Antton Kazabonek orrialde honetan atzo eginiko bertsoan zuzenketa bat egin beharra dago. Bertsoaren amaieran, poliziaren ekintza hutsak/ez ote du horren giltza? jarzen zuten lekuan, poliziaren ekintza hutsak/ba ote du horren giltza? jarri beharko luke. Barka okerrak.

GAIA JARRITA



Oscar sariak

'Oscar' sariak partitu dira beti bezalaxe, garaiz Hollywood hortan, dena dolarrez dama ederrez ta galaiz, komediaren traza haundiak hartzen diot nik horri maiz, ospe ttikiko artelanekin aseago gelditzen naiz.

MIKEL TABERNA 'KAPI'



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gortailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOSE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: LUZIEEN ETXEZAHARRETA, INAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriaidea 01-02. Pabillak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egortza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Araba: San Antonio, 20-1. Leiker / ☎ 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iruñe Monastegia, 45-13 esk. / (Iruñe) dorrea / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1 eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdia / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galopieria karia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11